



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

---

VII. legegintzaldia

Iruña, 2009ko uztailaren 28a

77. ZK.

---

### A U R K I B I D E A

#### G SAILA:

#### **Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Erriberriko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2006ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina (2. or.).
- Nafarroako toki sektore publikoari buruzko fiskalizazio txostena, 2006ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina (11. or.).

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

**Erriberriko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2006ko ekitaldikoa,  
Comptos Ganberak egina.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko abenduaren 15ean eginiko bilkuran, erabaki zuen Comptos Ganberak Erriberriko Udalari buruz egin-dako fiskalizazio txostena, 2006ko ekitaldikoa, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2008ko abenduaren 15ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**Erriberriko Udalari buruzko fiskali-  
zazio txostena, 2006ko ekitaldikoa,  
Comptos Ganberak egina**

**AURKIBIDEA**

- I. Sarrera (2. or.).
- II. Helburua (3. or.).
- III. Norainokoa (3. or.).
- IV. Iritzia (4. or.).
  - IV.1. Udalaren eta bere erakunde autonomoa-ren Kontu Orokorra, 2006ko ekitaldikoa (4. or.).
  - IV.2. Legezketasuna (4. or.).
  - IV.3. 2006ko abenduaren 31ko finantza-egoe-ra (4. or.).

V. 2006ko Kontu Orokorraren laburpena (5. or.).

V.1. Erriberriko Udala (5. or.).

V.2. Kirol Patronatua ((8. or.).

VI. Iruzkina, ondorioak eta gomendioak (9. or.).

VI.1. Alderdi orokorrak (9. or.).

VI.2. Langileen kontratazioa (9. or.).

VI.3. Administrazio-kontratazioa. (9. or.).

VI.4. Inbentarioa-Ibilgetua (10. or.).

VI.5. Tributu bidezko dirusarrerak; tasak; pre-zio publikoak (10. or.).

VI.6. Hirigintza (10. or.).

VI.7. Gomendioen ezarpena (10. or.).

**I. SARRERA**

Bere jarduera-programari jarraituz, Nafarroako Comptos Ganberak Erriberriko Udalaren eta haren erakunde autonomoaren –Kirol Patronatua– 2006ko Kontu Orokorraren fiskalizazioa egin du.

Erriberriko Udalak 3.494 biztanle ditu eta, bere erakunde autonomoarekin batera, hauexek ditu zifra adierazgarrienak 2006ko abenduaren 31n:

Erakundea	Aitorturiko betebeharrak	Aitorturiko eskubideak	Langileak, 2006-12-31n
Udala	3.702.869,77	3.715.522,27	39
Kirol Patronatua	20.281,63	22.684,79	1

Udala sarturik dago Mairagako Mankomunitatean, eta haren bidez ematen ditu uraren ziklo integralaren zerbitzuak eta hiri hondakin solidoen kudeaketa eta tratamendukoak.

Toki entitateari aplikatzekoa den araubide juridikoa, funtsean, honako hauek osatzen dute:

- Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legea.
- Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legea.
- Nafarroako Toki Araubidea Gaurkotzeari buruzko 11/2004 Foru Legea.
- Toki Araubidearen Oinarriak Arautzeko 7/1985 Legea.
- 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutua onesten duena.
- 10/1998 Foru Legea eta 6/2006 Foru Legea, kontratu publikoak arautzen dituztenak.
- Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra.
- Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legea.
- Kontabilitatearen eta aurrekontuen arloan, araubide juridikoa ezartzen dutenak 1998ko irailaren 21eko 270, 271 eta 272 foru dekretuak dira, zeinak Nafarroako toki administrazioarako aurrekontu eta gastu publikoari, aurrekontu-egiturari eta kontabilitateari buruzkoak baitira.
- Aurrekontu-betetzearen oinarriak.

Txostenak sei atal ditu, sarrera hau barne. Bigarren atalean txostenaren helburua adierazten da. Hirugarrenean, eginiko azterlanaren norainokoa, eta laugarrenean, Kontu Orokorrari, legezko-tasanari eta finantza-egoerari buruz dugun iritzia. Bosgarren atalean jaso dugu udalak prestatuturiko finantzen egoera-orrien laburpen bat, eta, seigarren eta azkenekoan, berriz, erakundearen barne-antolaketa eta -kontrola hobetzeko egokitzat jotzen ditugun iruzkin, ondorioztapen eta gomendioak biltzen dira, arloen arabera.

Eskerrak eman nahi dizkiegu udaleko langileei, lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik.

## II. HELBURUA

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Comptos Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz,

Erriberriko Udalaren 2006ko ekitaldiko Kontu Orokorraren erregulartasun-fiskalizazioa egin dugu.

Txostenaren helburua da honako hauei buruzko gure iritzia adieraztea:

a) Fiskalizatutako entitatearen 2006ko Kontu Orokorrak fidelki islatzen ote duen, alderdi esanguratsu guztietan, entitatearen egoera ekonomiko eta finantzarioa, bai eta aurrekontuaren likidazioa eta lorturiko emaitzak; halaber, orokorki onartuak diren kontabilitate printzipio eta arauari jarraituz prestatu ote den, eta horiek uniformetasunez aplikatu diren.

b) Entitateak 2006ko ekitaldian izandako jarduerari aplikatzekoa zaion legediaren betetze-maila.

c) Erakundearen egoera finantzarioa 2006ko abenduaren 31n.

Txostenean, beharrezkoak iruditzen zaizkigun iruzkin eta gomendioak eman ditugu, entitatearen antolaketa, barne-kontrola eta kudeaketa ekonomiko-finantzarioa hobetzekoak.

## III. NORAINOKOA

Comptos Ganberak Erriberriko Udalaren Kontu Orokorraren fiskalizazioa egin du. Kontu horretan sartuta daude udalarena berarena eta haren erakunde autonomoarena.

Hona hemen udalak aurkezturiko finantzen egoera-orri nagusiak:

- Aurrekontu-betetzearen egoera-orria.
  - Ekitaldiko aurrekontu-emaitzaren eta entitatearen diruzaintza-gerakinaren egoera-orria.
  - Entitatearen egoera-balantzea.
  - Entitatearen galera eta irabazien kontua.
- Erakunde autonomoak honako hauek dauzka:
- Aurrekontu-betetzearen egoera-orria.
  - Ekitaldiko aurrekontu-emaitzaren egoera-orria.
  - Diruzaintza-gerakinaren egoera-orria.

Esan behar da udalak ez duela aurkeztu bere eta bere erakunde autonomoa den Kirol Patronatuaren finantzen egoera-orri bateraturik.

Udalak aplikaturiko kontabilitate-araubidea jasota dago 272/1998 Foru Dekretuaren bidez onetsitako kontabilitate-instrukzio orokorrean.

Lana gauzatu da Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako eta Comptos Ganberaren fiskalizazio-eskuliburuan jasotako fiskalizazio-prin-

tzipioei eta -arauei jarraituz, eta azterlanaren helburuen eta inguruabarren arabera beharrezkotzat jo ditugun hautapropa edo prozedura tekniko guztiak aplikatuz. Prozedura horien artean erabili da laginen teknika, edo kontusail edo eragiketa zehatz hautatuak berrikustekoa.

Zehazki, udalari eta bere erakunde autonomari dagokienez, berrikusi dira bai beren aurrekontuen eta finantzen egoera-orrien edukia eta koherentzia, bai aplikaturiko oinarrizko prozedura administratiboak; eta ebaluatu dira antolaketa, kontabilitate eta barne kontroleko oinarrizko alderdiak.

Txostenean jasotzen dira udalaren eta bere menpeko entitateen kudeaketa hobetzeko gure ustez beharrezkoak diren iruzkin eta gomendioak.

#### IV. IRITZIA

Egin dugun lanaren norainokoarekin bat, Erriberriko Udalaren 2006ko ekitaldiko Kontu Orokorra aztertu dugu. Kontu hori prestatzeko ardura, baita bere edukiarena ere, udalarena da, eta laburbilduta jasota dago txosten honen V. atalean.

Gure lanaren emaitza gisa, honako iritziak dauzkagu:

##### IV.1. UDALAREN ETA BERE ERAKUNDE AUTONOMOAREN KONTU OROKORRA, 2006ko EKITALDIKOA

- Udalaren ondasunen inbentarioa eguneratu gabe dago; hori dela eta, ezin izan dugu egiaztatu 2006ko abenduaren 31ko egoera-balantzeko ibilgetuaren saldoa.
- Udalak ez du egin finantzen egoera-orri bategaturik.

Arestian aipaturiko salbuespenen ondorioak alde batera utzita, udalaren 2006ko ekitaldiko Kontu Orokorrak fidelki islatzen ditu alderdirik behinenetan gastuen eta diru-sarreraren aurrekontuen likidazioa, abenduaren 31ko ondare-egoera eta eginiko eragiketen emaitzak. Halaber, behar bezala interpretatu eta ulertzeko informazio beharrezkoa eta nahikoa du, aurreko ekitaldian aplikaturikoekin bat datozen eta guztiok onartuak diren kontabilitate printzipio eta arauari jarraituz.

#### IV.2. LEGEZKOTASUNA

Eginiko lanaren norainokoaren neurrian, esan daiteke udalaren jardura ekonomiko eta finantzarioa oro har legezkontasun printzipioari jarraituz egin dela.

##### IV.3. 2006ko ABENDUAREN 31ko FINANTZA-EGOERA.

###### IV.3.1. Udalaren finantza-egoera

Aurrekontuaren likidazioaren egoera-orriak 3.715.522 euroko dirusarrera aitortuak agertzen ditu guztira, eta aurrekontu-betetzea % 84koa izan da, 2005ean aitorturiko 2.990.374 euroekin konparatuta (% 64ko exekuzioa).

Gastuei dagokienez, egoera-orri horrek 3.702.869 euroko betebeharrak aitortuak agertzen ditu guztira (% 84ko betetzea), 2005ean aitorturiko 2.510.568 euroekin konparatuta (% 53ko exekuzioa).

Dirusarrera guztien artean garrantzi handieneko kapituluak dira transferentzia arruntak eta zuzeneko zergak, zeinek guztizkoaren ehuneko 27 eta ehuneko 23 egiten baitute, hurrenez hurren. Kapitulu horietatik izan ziren 2005eko aipagarrienak.

Gastu guztien artean garrantzi handieneko kapituluak dira inbertsio errealak eta langileen ordainsariak, zeinek guztizkoaren ehuneko 38 eta ehuneko 31 egiten baitute, hurrenez hurren. 2005eko kapituluak aipagarrienak langileen ordainsariak eta ondasun eta zerbitzuen erosketak izan ziren, eta ehuneko 43 eta ehuneko 31 egin zuten, hurrenez hurren.

Dirulaguntzekiko menpekotasunari dagokienez, egoerak ez du ia aldaketarik izan: 2006an ehuneko 41era igo da.

2006an, aurrekontu-emaitza doitua<sup>(1)</sup> 2005ekoaren antzekoa izan da: 292.287 euroko superabita. Gainera, udalak 494.307 euroko diruzaintza-gerakina dauka gastu orokorretarako, eta 1.004.389 euroko epe luzeko zorra.

Azaldutako datuen arabera, Erriberriko Udalak erakusten duen egoera finantzarioaren ezaugarri nagusia da zorpetze-maila baxua duela (ehuneko 2,9koa), bere zorpetze-mugatik urrun (ehuneko 23,4koa).

(1) Aurrekontu-emaitza = Aitorturiko eskubide garbiak – Aitorturiko betebeharrak garbiak

Aurrekontu-emaitza doitua = Aurrekontu-emaitza – Doikuntzak (finantzaketa-desbideraketa positibo eta negatiboak eta diruzaintzako gerakinarekin finantzaturiko gastuak)

**IV.3.2. Kirol Patronatuaren egoera finantzarioa.**

Kirol Patronatuaren aurrekontuaren betetzea, 2006ko ekitaldian, 20.282 eurokoa izan zen gastuetan, eta 22.282 eurokoa, dirusarreretan. Patronatu honek ez dauka epe luzeko finantzaketarik.

**V. 2006KO KONTU OROKORRAREN LABURPENA**

Erriberriko Udalak ez du 2006ko Kontu Orokor bateraturik egin; horrela, ba, finantzen egoera-orri banakako hauek erantsi ditugu:

**V.I. ERRIBERRIKO UDALA****2006ko aurrekontuaren betetze-maila.**

Dirusarreraren kapituluak	Hasierako aurreikuspena	Aldaketak	Behin betiko aurreikuspena	Aitorturiko eskubideak	Kobratutakoa	Kobratzeko	Bete-tzearen %	Aitorturiko guztizkoaren gaineko %
1. Zuzeneko zergak	814.150,00	0,00	814.150,00	845.032,16	828.090,85	16.941,31	%104	%23
2. Zeharkako zergak	300.000,00	0,00	300.000,00	513.727,11	504.241,40	9.485,71	%171	%14
3. Tasak eta beste diru-sarrera batzuk	344.800,00	0,00	344.800,00	438.230,13	391.120,49	47.109,64	%127	%12
4. Transferentzia aruntak	959.000,00	100,36	959.100,36	985.021,54	943.929,04	41.092,50	%103	%27
5. Ondare-dirusarrerak	225.450,00	0,00	225.450,00	126.045,68	98.080,90	27.964,78	%56	%3
6. INBERTSIO ERREALAK BESTERENTZEA	278.755,00	0,00	278.755,00	92.056,36	64.892,21	27.164,15	%33	%2
7. Kapital-transferentziak	914.100,00	49.500,00	963.600,00	535.017,44	461.130,19	73.887,25	%56	%14
8. Finantza-aktiboen aldaketa	0,00	547.359,51	547.359,51	0,00	0,00	0,00	%0	%0
9. Finantza-pasiboen aldaketa	0,00	0,00	0,00	180.391,85	180.391,85	0,00	%0	%5
<b>Dirusarrerak, guztira</b>	<b>3.836.255,00</b>	<b>596.959,87</b>	<b>4.433.214,87</b>	<b>3.715.522,27</b>	<b>3.471.876,93</b>	<b>243.645,34</b>	<b>%84</b>	<b>%100</b>

Gastuen kapituluak	Hasierako aurreikuspena	Aldaketak	Behin betiko aurreikuspena	Aitorturiko betebeharrak	Ordaindutakoa	Ordaintzeko dagoena	Bete-tzearen %	Aitorturiko guztizkoaren gaineko %
1. Langileen lansariak	1.165.955,00	-18.200,00	1.147.755,00	1.138.315,16	1.124.871,18	13.443,98	%99	%31
2. Ondasun arruntak eta zerbitzuak erostea	844.550,00	87.000,00	931.550,00	908.817,06	802.618,74	106.198,32	%98	%25
3. Interesak	37.400,00	-20.300,00	17.100,00	10.386,14	10.356,14	30,00	%61	%0
4. Transferentzia aruntak	207.850,00	-16.499,64	191.350,36	179.444,50	169.310,15	10.134,35	%94	%5
6. Inbertsio errealak	1.502.000,00	564.959,51	2.066.959,51	1.388.980,20	1.267.625,28	121.354,92	%67	%38
7. Kapital-transferentziak	3.900,00	0,00	3.900,00	2.531,20	2.531,20	0,00	%65	%0
8. Finantza-aktiboen aldaketa	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	%0	%0
9. Finantza-pasiboen aldaketak	74.600,00	0,00	74.600,00	74.395,51	74.395,51	0,00	%100	%2
<b>Gastuak, guztira</b>	<b>3.836.255,00</b>	<b>596.959,87</b>	<b>4.433.214,87</b>	<b>3.702.869,77</b>	<b>3.451.708,20</b>	<b>251.161,57</b>	<b>%84</b>	<b>%100</b>

## Aurrekontu-emaiza

Kontzeptua	2006
+ Aitorturiko eskubide garbiak	3.715.522,27
- Aitorturiko betebeharrak garbiak	(3.702.869,77)
<b>AURREKONTU EMAITZA</b>	<b>12.652,50</b>
<b>DOITZEAK</b>	
- Finantzaketaren desbideraketa positiboa	(64.098,72)
+ Finantzaketaren desbideraketa negatiboa	127.191,06
+ Diruzaintzako gerakinarekin finantzaturiko gastuak	216.542,87
+ Merkataritzako eragiketen emaitza	0,00
<b>AURREKONTU EMAITZA DOITUA</b>	<b>292.287,71</b>

## Diruzaintzako gerakinaren egoera-orria 2006ko abenduaren 31n

Kontzeptua	2006. urtean
<b>+ Kobratzeko dauden eskubideak</b>	<b>441.010,30</b>
+ Dirusarreren aurrekontua: aurtengo ekitaldia	243.645,34
+ Dirusarreren aurrekontua: itxitako ekitaldiak	171.248,57
+ Kobratzeko dauden itzulketak	0,00
- Aplikatzeko dauden dirusarrerak	0,00
+ Aurrekontuz kanpoko dirusarrerak	26.116,39
<b>- Bilketa zaileko eskubideak</b>	<b>(113.061,87)</b>
<b>- Ordaintzeko dauden betebeharrak.</b>	<b>(427.282,81)</b>
- Gastuen aurrekontua: aurtengo ekitaldia	(251.161,57)
- Gastuen aurrekontua: itxitako ekitaldia	(63.138,49)
- Ordaintzeko dauden dirusarreren itzulketak	139,74
+ Aplikatzeko dauden gastuak	0,00
- Aurrekontuz kanpoko gastuak	(112.843,01)
<b>+ Diruzaintzako funts likidoak</b>	<b>892.655,78</b>
<b>+ Finantziario-desbideraketa metatu negatiboak</b>	<b>0,00</b>
<b>= Diruzaintzako gerakina, guztira</b>	<b>793.321,40</b>
Finantzaketa atxikia duten gastuen diruzaintzako gerakina	78.495,49
Baliabide atxikien diruzaintzako gerakina	220.518,61
Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina	494.307,30

## Egoeraren balantzea

## AKTIBOA

Deskribapena	2006
<b>IBILGETUA</b>	<b>12.729.277</b>
Ibilgetu materiala	7.691.066
Ibilgetu ez-materiala	237.514
Erabilera orokorreko azpiegiturak eta ondasunak	2.967.398
Hermi ondasunak	1.832.519
Ibilgetu finantzarioa	780
<b>ZENBAIT EKITALDITAN BANATU BEHARREKO GASTUAK</b>	<b>0,00</b>
Deuseztatu beharreko gastuak	0,00
<b>IBILKORRA</b>	<b>1.333.665</b>
Izakinak	0,00
Zordunak	441.009
Kontu finantzarioak	892.656
Finantza egoera iragankorrak, aldizkatzearen ondoriozko doitzeak	0,00
Aplikatzeko dagoen emaitza (ekitaldiko galera)	0,00
	<b>14.062.942</b>

## PASIBOA

Deskribapena	2006
<b>FUNTS BEREKIAK</b>	<b>12.631.271</b>
Ondarea eta erreserbak	9.565.950
Ekitaldiaren emaitza ekonomikoak (etekina)	677.842
Kapital-dirulaguntzak	2.387.479
<b>ARRISKU ETA GASTUETARAKO PROBISIOAK</b>	<b>0,00</b>
Hornidurak	0,00
<b>EPE LUZEKO HARTZEKODUNAK</b>	<b>1.004.389</b>
Jasotako prestamenak, maileguak, fidantzak eta gordailuak	1.004.389
<b>EPE LABURREKO HARTZEKODUNAK</b>	<b>427.282</b>
Aurrekontu itxietako eta aurrekontuz kanpoko hartzekodunak	427.282
Aplikatzeko dauden kontusailak eta aldizkatzearen ondoriozko doitzeak	0,00
	<b>14.062.942</b>

## V.2. KIROL PATRONATUA

## 2006ko aurrekontuaren betetze-maila.

Dirusarreraren kapitulua	Hasierako aurreikuspena	Aldaketak	Behin betiko aurreikuspena	Eskubide aitortuak	Kobratutakoa	Kobratzeko	Bete- tzearen %	Aitorturiko guztizkoaren gaineko %
3. Tasak eta beste diru-sarrera batzuk	200,00	0,00	200,00	0,95	0,95	0,00	%0	%0
4. Transferentzia arruntak	23.100,00	0,00	23.100,00	22.683,84	22.500,00	183,84	%98	%100
<b>Dirusarrerak, guztira</b>	<b>23.300,00</b>	<b>0,00</b>	<b>23.300,00</b>	<b>22.684,79</b>	<b>22.500,95</b>	<b>183,84</b>	<b>%97</b>	<b>%100</b>

Gastuen kapitulua	Hasierako aurreikuspena	Aldaketak	Behin betiko aurreikuspena	Aitorturiko betebeharrak	Ordaindutakoa	Ordaintzeko dagoena	Bete- tzearen %	Aitorturiko guztizkoaren gaineko %
1. Langileen lantsariak	8.850,00	0,00	8.850,00	8.830,33	8.580,00	250,46	%100	%44
2. Ondasun arruntak eta zerbitzuak erostea	7.500,00	0,00	7.500,00	5.695,79	5.476,00	219,60	%76	%28
4. Transferentzia arruntak	6.950,00	0,00	6.950,00	5.755,51	5.755,51	0,00	%83	%28
<b>Gastuak, guztira</b>	<b>23.300,00</b>	<b>0,00</b>	<b>23.300,00</b>	<b>20.281,63</b>	<b>19.811,57</b>	<b>470,06</b>	<b>%87</b>	<b>%100</b>

## Egoeraren balantzea

AKTIBOA		2006
<b>IBILGETUA</b>		<b>0,00</b>
<b>IBILKORRA</b>		<b>12.677,89</b>
Izakinak		0,00
Zordunak		365,77
Kontu finantzarioak		9.080,73
Aplikatzeko dagoen emaitza (ekitaldiko galera)		3.231,39
<b>AKTIBOA, GUZTIRA</b>		<b>12.677,89</b>

PASIBOA		2006
<b>FUNTS BEREKIAK</b>		<b>8.165,88</b>
Ondarea eta erreserbak		5.762,71
Ekitaldiaren emaitza ekonomikoak (etekina)		2.403,17
Kapital-dirulaguntzak		0,00
<b>EPE LUZEKO HARTZEKODUNAK</b>		<b>0,00</b>
Jasotako prestamenak, maileguak, fidantzak eta gordailuak		0,00
<b>EPE LABURREKO HARTZEKODUNAK</b>		<b>4.512,01</b>
Aurrekontu itxietako eta aurrekontuz kanpoko hartzekodunak		4.512,01
<b>PASIBOA, GUZTIRA</b>		<b>12.677,89</b>



## VI. IRUZKINAK, ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

Jarraian azaltzen dira, kudeaketa-arlo garrantzitsuenetako bakoitzerako, gure aburuz udalak bete behar dituen gomendio nagusiak, bere antolaketa-sistemak, prozedurak, kontabilitatea eta barne-kontrola hobetzeko.

### VI.1. ALDERDI OROKORRAK

- *Datak eta prozedurak betetzeari buruz indarreko legeriak ezarritako betekizunak betetzea aurrekontu-onespenean.*

- *Dirusarrera berriekin finantzatzen diren ohiz kanpoko kredituen bidezko aurrekontu-aldaketek bete beharreko baldintza da egiazki jasotako dirusarrerak izatea, indarreko aurrekontuan aurreikusitako guztizko dirusarreraren gainetik.*

- *Udalarentzat eta haren erakunde autonomoarentzat kontu bateratua prestatu behar da.*

- *Kirol Patronatua udal zerbitzu bilakatzea aztertu beharreko gai bat da, kudeatzen dituen baliabideen ehuneko 99 udalaren beraren ekarpena baitira.*

- *Kutzako diru-kontaktak egitean, horiek dokumentatzea. Kontaktak horiek ikuskatu eta sinatuko dituen pertsona ez da izanen kutzako*

*eragiketak egiten dituen bera. Horrenbestez bilatzen da eginkizun-bereizketa egokia bermatzea.*

- *Eskudiru-kutxa erabiltzea kopuru txikiak ordaindu eta kobratzeko soilik. Kutxa hori bertan behera uzteko ahalegina egin behar da.*

- *Erregistraturiko eragiketa guztietan (hala gastuetan nola dirusarreretan) sortzapen-printzipioa aplikatu behar da.*

### VI.2. LANGILEEN KONTRATAZIOA

Kontratazio espediente hauek aztertu ditugu:

- Atezain baten kontratazioa

- Zeharkako txirulako irakasle baten kontratazioa

Kontratazio horien azterketatik ondorioztatzen da araudi indarduna behar bezala bete dela.

### VI.3. ADMINISTRAZIO-KONTRATAZIOA.

Atal honetan sartzten dira hala ondasun arrunt eta zerbitzuetan eginiko gastuei buruzko alderdiak nola inbertsioei buruzkoak.

Ondasun arrunt eta zerbitzuetako gastuengatik 2006ko ekitaldian aitorturiko betebeharren xehakapena honako hau da:

Kontzeptua	Aitorturiko betebeharrak 2006
Erentamenduak	20.451,51
Konponketak, mantentze-lanak eta zaintza	191.224,23
Materiala, homidurak eta bestelakoak	692.777,07
Zerbitzuaren ondoriozko kalteordainak	4.364,25
<b>GUZTIRA</b>	<b>908.817,06</b>

Kontratazio espediente hauek aztertu ditugu:

- Herriko jaietako musika-ekitaldien kontratazioa. Zenbatekoa: 27.000 euro.

- Erriberriko Erdi Aroko festen antolaketaren kontratazioa. Zenbatekoa: 29.910,83 euro.

- Kale-konponketaren kontratazioa: 12.588,30 euro.

Hona hemen 2006ko ekitaldian aitorturiko betebeharren xehakapena, inbertsioen arabera:

Kapitulu ekonomikoak	Aitorturiko betebeharrak 2006
Azpiegiturak eta erabilera publikoko ondasunak	887.581,49
Zerbitzuen funtzionamenduari loturiko inbertsioak	261.825,53
Inbertsio ez-materialak	30.179,37
Ondare ondasunetan eginiko inbertsioa	165.417,43
Hemir ondasunetan eginiko inbertsioak	43.976,38
<b>GUZTIRA</b>	<b>1.388.980,20</b>

2006an eginiko esleipen-espeditente garrantzi-tsuenak berrikusi ditugu. Inbertsioen esparruan, honako hauek izan dira:

- Brigadarentzako kamioia eta plataforma erostea (zenbatekoak: 56.397,67 eta 42.575 euro, hurrenez hurren).
- Oihan-zereginak. Zenbatekoa: 50.745,31 euro.
- *Maestro Cerero* liburua argitaratzea. Zenbatekoa: 8.155,58 euro.
- Kirol-instalazioak. Zenbatekoa: 91.400 euro.
- “Camino de la Plana” deritzon bidearen konponketa. Zenbatekoa: 70.517,66 euro.

Eginiko laginketatik ondorioztatzen da behar bezala betetzen dela indarreko araudia.

#### VI.4. INBENTARIOA-IBILGETUA

• *Udal ondasunen eskrituratze eta erregistratze prozesua osatzea.*

• *Udal inbentarioa eguneratu eta onestea, eta altak eta bajak kontrolatzeko eta jarraitzeko sistema bat ezartzea, zeinak erraztuko baitu hura etengabe eguneratuta eta kontabilitatean ibilgetuarekin lotuta egotea.*

• *Ibilgetua osatzen duten kontabilitate-saldoak berrikusi eta garbitzea, udalaren ondasunak ongi isla ditzaten.*

#### VI.5. TRIBUTU BIDEZKO DIRUSARRERAK; TASAK; PREZIO PUBLIKOAK

• *Eraikuntzen, instalazioen eta obren gaineko zergaren (EIOZ) behin betiko likidazioa egitea, kostu erreal efektiboa ikusirik, eta, kasua bada, behin-behineko likidazioa egin zeneko zerga-oinarria aldatzea, subjektu pasiboari egoki den kopurua eskatuz edo itzuliz, kasuaren arabera, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Legeak xedatuari jarraituz.*

• *Museoaren/erakusketaren sarreren salmentatik heldutako dirusarreraren jarraipena eta kontrola egiteko bitartekoak ezartzea.*

#### VI.6. HIRIGINTZA

2005eko urrian, Erriberriko Udalak hasierako onespina eman zion udal plan berri bati, eta

horrekin batera, hirigintza-jarduera guztiak bertan behera utzi ziren halako arloetan non xedatze berriak uneko hirigintza-araubidearen aldaketa eragiten baitzuen.

2006ko irailean, udalak behin betiko onespina eman zion plan berriari, eta Nafarroako Gobernuak azaroaren 30ean egin zuen hori, 449/2006 Foru Aginduaren bitartez; plan berri hori jadanik guztiz egokituta dago Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legeak ezarritakora.

Udalak 2006an dirusarrerak eskuratu zituen nahitaezko lagapenetatik heldutako lursailen salmentarengatik. Nahiz eta dirusarrera horiek lursail-salmenta gisa erregistratu diren Lurzoruaren Udal Ondarean sartuak izan gabe, geroago udalak justifikatu du urbanizazio-obretarako erabili direla, eta erabilera hori da, hain zuzen, Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko Legeak Lurzoruaren Udal Ondarerako ezartzen dituen erabileretako bat.

• *Lurzoruaren Udal Ondarea eratu eta kudeatu behar da udalaren gainerako ondasunetatik bereizirik, sarrerak eta irteerak erregistratuz, bai lursailenak bai eskudiruarenak, eta indarreko araudian ezarritako xedeetarako erabili direla frogatu behar da.*

• *Hirigintza-hitzarmenen erregistro bat sortzea gomendatzen dugu.*

#### VI.7. Gomendioen ezarpena

Txosten hau idazketa-fasean zegoela, udala honako gomendio hauek aplikatzen hasi da:

• *Udalak inbentarioaren eguneratzea egin dadin eskatu du, eta udal-ondareen eskrituratze-eta erregistratze-prozesua abian da.*

• *EIOZ likidatzeko prozedura aldatu egin da.*

• *Prozedura bat ezarri da, erakusketarako sarreren salmentatik heldutako dirusarrerak kontrolatzeko.*

Txosten hau eman da araudi indardunak ezarritako izapide guztiak bete ondoren.

Iruñean, 2008ko abenduaren 4an  
Lehendakaria, Luis Muñoz Garde

## Nafarroako toki sektore publikoari buruzko fiskalizazio txostena, 2006ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko otsailaren 16an eginiko bilkuran, erabaki zuen Comptos Ganberak Nafarroako toki sektore publikoari buruz egindako fiskalizazio txostena, 2006ko ekitaldikoa, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2009ko otsailaren 16an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### Nafarroako toki sektore publikoari buruzko fiskalizazio txostena, 2006ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina

#### AURKIBIDEA

Egindakoaren laburpena (11. or.).

I. Sarrera (11. or.).

II. Helburua (11. or.).

III. Norainokoa eta mugak (12. or.).

III.1. Norainokoa (12. or.).

III.2. Mugak (14. or.).

IV. Ondorioak (14. or.).

IV.1. Nafarroako toki sektore publikoaren egitura (14. or.).

IV.2. 2006ko ekitaldian zehar Nafarroako toki entitateen araubidea ezarri duten arauen multzoa (16. or.).

IV.3. Egindako fiskalizazio txostenak (17. or.).

IV.4. Nafarroako toki sektore publikoaren finantza-egoera 2006an (19. or.).

1. gehigarria. Nafarroako toki sektore publikoaren finantza egoerari buruzko 2006ko txostena.

2. gehigarria. Nafarroako udal guztien 2006ko finantza egoera.

Oharra: Aipatu eranskinak foru parlamentarien eskura daude Legebiltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan eta ondoko web-gunean:  
[www.cfnavarra.es/camara.comptos](http://www.cfnavarra.es/camara.comptos)).

#### EGINDAKOAREN LABURPENA

Nafarroako Comptos Ganberak 2006ko ekitaldiari dagokion toki sektore publikoari buruzko txostena egin du, eta bertan, Nafarroako udalen eta

gainerako toki-entitateen egoera ekonomiko eta finantzarioari buruzko ikuspegi orokorra eskaintzen du.

Txosteneko datuen arabera, Nafarroan guztira 815 toki-entitate daude, honela banatuak: 272 udalerrri, 353 kontzeju, 66 mankomunitate, 12 udal-batasun, 10 partzuergo, 73 erakunde autonomo, udaletako 24 merkataritza-sozietate, eta mankomunitateetako 5 merkataritza-sozietate.

Comptos Ganberak, azken urteotan egin duen bezalaxe, txostenean azpimarratzen du ezen oraindik ere eguneratu gabe dirauela Nafarroako Toki Administrazioaren ereduak, "zeinak herritarren gaur egungo exigentziak eta eskaerak uztartu behar baititu kudeaketa publiko arrazional batekin". Ildo horretatik, txostenak adierazten du ezen, "lehentasunez eta presaz", beharrezkoak diren legegintza- eta administrazio-neurriak hartu behar direla Nafarroako Toki Administrazioaren gaur egungo egoera arrazionalizatzeko."

Txostenak kritikatu egiten du zenbait udaletan hirigintzaren kudeaketarako erabiltzen ari diren sistema, merkataritza-sozietateen bitartezkoa; sozietate horietako batzuetan bazkide pribatuek parte hartzen dute, zeinak, azkenean, kudeaketaren esleipen-hartzaile suertatzen baitira.

Fiskalizaturiko entitateen kudeaketari dagokionez, ordea, Nafarroako Comptos Ganberak bilakera positibo bat izan dela ikusten du, batez ere aldiroko auditoria egin izan zaien udaletan.

Txostenak Nafarroako toki sektoreari buruzko datu ekonomikoak biltzen dituen eranskin bat hartzen du bere barrenean, Nafarroako Gobernuako Toki Administrazioari Departamentuak egindakoa. Eranskin horren bigarren zatian sarturik daude, halaber, udalerrri bakoitzari buruzko datuak, batez besteko adierazle batzuk barne, zeinek modua ematen baitute haien egoera konparatzeko populazio-maila bereko egoerarekin eta Nafarroako batez bestekoarekin.

#### I. SARRERA

Txostenak ondoko egitura du:

- Sarrera.

- Helburuak.

- Norainokoa eta mugak.

- Ondorio orokorrak, Nafarroako toki sektore publikoaren egiturari, Nafarroako toki entitateen

arau-esparruari eta Nafarroako toki sektore publikoaren finantza egoerari buruzkoak.

- Gehigarri bat. Aurreko urtekoaren antzera, Toki Administrazioiko Departamentuak Nafarroako toki sektore publikoaren finantza egoerari buruz 2006an egindako txostena da.

Gehigarri honek bi atal dauzka. Lehenbizikoan toki sektore osoaren datu erantsiak jasotzen dira (udalak eta kontzejuak, eta mankomunitateak); bigarrenean, berriz, aurrekontu likidazioak eta toki entitatearen arabera zenbait adierazle jasotzen dira.

Aurreko ekitaldian bezala, eta toki-jarduerari buruzko informazio osoagoa emate aldera, ondo-koak ere eman ditugu txostenean: biztanle bakoitzeko aurrekontu-betetzea, biztanle bakoitzeko dirubilketa eta lau urtetako adierazleak.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Nafarroako toki entitateetako, Nafarroako Gobernuko Toki Administrazioiko Departamentuko eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioko langileei, lan hau egiteko eskaini diguten laguntzarengatik.

## II. HELBURUA

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearekin eta Comptos Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearekin bat etorritz, Nafarroako toki sektore publikoari buruzko 2006ko ekitaldiko txostena egin da.

Txosten hau eginez, Comptos Ganberak ondoren aipatzen diren helburuak lortu nahi ditu:

a) Nafarroako Parlamentuari, administrazio publikoei eta iritzi publikoari ikuspegi bat ematea Nafarroako toki entitateen antolamenduari eta egoera ekonomikoari buruz, baita haien jarduera legezotasun-printzipioaren arabera izateari buruz ere, Comptos Ganbera honek xede horretarako egin dituen lanen arabera.

b) Nafarroako Toki Administrazioari buruzko Foru Legeko (TAFL) 350.2 artikulua esaten duena betetzea, hark ezartzen baitu derrigorrezkoa dela urtero bidaltzea Nafarroako Parlamentuari eta Gobernuari Comptos Ganberak toki esparruan egin dituen jarduketan berri ematen duen laburpen-oroitidazkia.

c) Nafarroako Parlamentuari eta administrazio publikoei proposatzea, kasua bada, toki entitateen kudeaketa hobetzeko bidea emanen duten neurri orokorren multzo bat aurrera eraman dezaten.

d) Nafarroako udal guztien kontuen laburpena aurkeztea, laburpen horretan jarriz haien egoera ekonomiko-finantzarioaren azterketa erraztuko duten adierazleak.

Toki entitateek ekitaldi bakoitzeko kontu orokorrak onetsi eta Gobernuari igortzeko Toki Ogasunei buruzko Foru Legeak ezarritako epeak eta informazio horren tratamenduaren zailtasuna direla eta, txosten hau ezin izan da lehenago egin.

## III. NORAINOKOA ETA MUGAK

### III.1. NORAINOKOA

Lan hau egiteko ondoko dokumentazioa azertu dugu:

a) Toki sektore publikoaren egitura. Nafarroako Estatistika Institutuaren eta Toki Administrazioiko Departamentuaren informazioa baliatu dugu, bai eta Nafarroako Comptos Ganberarena berarena ere.

b) Arau-esparrua. Ekitaldian zehar onetsi eta argitaratu den araudia aztertu da.

c) Fiskalizazio txostenak. Aztertutako 17 entitateenak baliatu ditugu –horietako 10ek 5.000 biztanle baino gehiago dituzte, eta 7 entitatek 5.000 biztanle baino gutxiago–, Comptos Ganberak 2006ko ekitaldiari buruz eginak eta argitaratuak. Horra:

Fiskalizatutako udalak < 5.000 biztanle	Ekitaldia	NPAO. Zk. (data)	Biztanleak, 2006- 01-01eko errolaren arabera	Aitorturiko betebeharrak (eurotan)	Aitorturiko eskubideak (eurotan)
Agoitz	2006	69 (2008/08/21)	2.175	4.642.033	6.319.723
Castejón (bateratu gabe)	2006	Ordaintzeke	3.887	8.912.842	9.271.095
Lodosa (bateratu gabe)	2006	Ordaintzeke	4.746	4.886.979	5.198.045
Mendabia	2006	69 (2008/08/21)	3.773	3.821.253	5.360.587
Noain (bateratu gabe)	2006	73 (2008/09/09)	4.789	9.010.420	8.497.272
Erriberri	2006	Ordaintzeke	3.494	3.702.870	3.715.522
Viana	2006	68 (2008/08/11)	3.661	10.116.291	8.491.883
<b>GUZTIRA</b>			<b>26.525</b>	<b>45.092.688</b>	<b>46.854.127</b>

Fiskalizatutako udalak > 5.000 biztanle	Ekitaldia	NPAO. Zk. (data)	Biztanleak, 2006- 01-01eko errolaren arabera	Aitorturiko betebeharrak (eurotan)	Aitorturiko eskubideak (eurotan)
Antsoain	2006	59 (2008/06/24)	9.952	11.634.785	13.147.777
Barañain	2006	Ordaintzeke	22.401	14.740.715	16.279.339
Berriozar	2006	Ordaintzeke	8.555	5.737.725	5.254.668
Burlata	2006	28 (2008/03/27)	18.388	17.441.368	15.488.408
Lizama	2006	Ordaintzeke	13.892	14.814.204	17.281.191
Iruña	2006	Ordaintzeke	195.769	238.070.063	213.156.909
Tafalla	2006	Ordaintzeke	11.040	9.964.967	11.174.687
Tutera	2006	Ordaintzeke	32.802	37.110.145	36.155.436
Atarrabia	2006	Ordaintzeke	10.295	8.148.141	8.327.146
Zizur Nagusia	2006	30 (2008/04/01)	13.197	24.371.414	53.257.660
<b>GUZTIRA</b>			<b>336.291</b>	<b>382.033.526</b>	<b>389.523.220</b>

Fiskalizaturiko 17 entitate horien populazioa 362.816 biztanlez osatua da; hau da, Foru Komunitateko 2006ko urtarrilaren 1eko errolda ofizialean dauden 601.874 biztanleen ehuneko 60.

5.000 biztanle baino gehiagoko udalen datuak bateratuak dira.

26 erakunde autonomo aztertu dira, 2006ko ekitaldian Nafarroan zeuden 73etatik ehuneko 35,6.

Toki entitatea	Erakunde autonomoa/Patronatua	Aitorturiko betebeharrak	Aitorturiko eskubideak
Antsoain	Gazte-Berriak Kirol eta Kultura Patronatua	480.177	107.236
	Euskara sustatzeko Patronatua	101.602	29.257
	Sexu Hezkuntza eta Jaiotza-kontrolerako Patronatua	Jarduerarik gabe	
Barañain	Lagunak Udal Zerbitzua	2.204.499	2.203.403
	"Luis Morondo" Musika Eskola	803.865	819.231
Burlata	Kirol Patronatua	1.918.390	1.361.841
	Kultura Patronatua	690.778	130.169
	Musika Patronatua	717.142	515.306
Castejón	"Solidaridad" egoitza mistoa	639.830	642.605
	Udal Musika Eskola	80.126	80.126
Lizarra	"Julián Romano" Musika Patronatua	328.874	313.621
Lodosa	Zahar-etxearen Patronatua	2.452	2.454
Noain	Kirol Patronatua	242.001	247.557
	Kultura Patronatua	351.137	338.358
	Musika Patronatua	432.141	443.329
Erriberi	Kirol Patronatua	20.282	22.685
Iruña	Hirigintza Gerentzia	10.204.000	4.329.000
	Haur Eskolak	6.069.000	6.190.000
Tafalla	Musika Eskola	480.058	215.587
	Kultura Patronatua	399.456	27.998
	Kirol Patronatua	294.131	387.368
Tutera	Uren Udal Batzarra	2.727.309	2.843.013
	Castel-Ruiz Kulturgunea	3.663.195	3.663.195
Zizur Nagusia	Musika Eskolaren Patronatua	386.303	387.371
	Kultura Patronatua	427.360	445.991
	Ardoi Kirol Patronatua	492.985	470.471
<b>GUZTIRA</b>		<b>34.157.093</b>	<b>26.217.172</b>

d) Finantza egoera. Toki Administrazioako Departamentuak emandako informazioan oinarrituta egin da (informazioa txosten honen gehigarri gisa doa).

### III.2. MUGAK


Ez dugu toki entitateen finantzen egoera-orri bateraturik; izan ere, ez da taxutu toki sektore

publikoa bateratzeari buruzko araudirik, eta hori muga bat da txosten hau egiteari begira.

## IV. ONDORIOAK

### IV.I. NAFARROAKO TOKI SEKTORE PUBLIKOAREN EGITURA

2006ko abenduaren 31n, honelaxe osaturik zegoen Nafarroako toki sektore publikoa:



Jarraian, Nafarroako toki sektore publikoak 2000tik 2006rako epean abenduaren 31n izanda-

ko egitura azalduko dugu, fundazioak kontuan hartu gabe:

Erakundea	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006
Udala	272	272	272	272	272	272	272
Kontzejuak	363	362	362	362	358	355	353
Mankomunitateak	59	62	64	64	64	64	66*
Udal batasunak	9	10	10	10	10	10	12
Partzuergoak	8	8	8	11	11	10	10
Erakunde autonomoak (udalak eta manka.)	76	75	76	75	75	79	73
Udalen merkataritza-sozietateak	9	9	10	13	14	20	24
Mankomunitateen merkataritza-sozietateak	5	5	5	5	5	5	5
<b>GUZTIRA</b>	<b>801</b>	<b>803</b>	<b>807</b>	<b>812</b>	<b>809</b>	<b>815</b>	<b>815</b>

\* Sei mankomunitatek ez dute jarduerarik.

Entitateen guztizko kopurua bere horretan mantentzen da, nahiz eta honako aldaketak eta doikuntzak egin diren:

	Alta	Baja
Erakunde autonomoak	Castejóngo Musika Eskola	Cortesko Kiroren Udal Patronatua  Erroko Kultura eta Kirol Patrotanua Mendabiako Udalaren Kirol Patronatua Tafallako udal eta terapia zerbitzua Ultzamako Kirol eta Kultura Patronatua Vianako Ntra. Sra. de Gracia zahar-etxea Atarrabiako Kultur Patronatua
Sozietateak	Mokarte (Uharte) Urarte (Uharte) Andazalay (Egues) Gestión y promociones Egés 21 (Egues)	
Elkartek	Calibus, administrazio-zerbitzuen elkarteak Valemañeru, administrazio-zerbitzuen elkarteak	
Mankomunitateak	Kirol-mankomunitatea, Areso-Araitz-Betelu Larraun-Lekunberri Orreaga kirol-mankomunitatea	
Kontzejuak		Olloki Naxurieta

2000tik 2006ra bitartean entitate-kopuruan izandako aldaketei dagokienez, nahiz eta kuantitatiboki aipagarriak ez diren, azpimarratzekoa da udalen menpeko merkataritza-sozietateen kopurua izandako gorakada, % 167koa.

Comptos Ganbera honen iritziz –behin eta berriro adierazi izan duen bezala–, arazoa ez da, berez, entitate-kopurua, baizik eta botere publikoek nahi izatea Nafarroako Toki Administrazioaren ereduak gaurkotu gabe jarraitzea. Eredu horrek bateragarri egin beharko ditu herritarren gaur egungo eskaerak eta kudeaketa publiko zentzuzkoa.

*Gure gomendioa da lehentasunez eta presaz aplika daitezela Nafarroako Toki Administrazioaren gaur egungo egoera arrazoizkoagoa izan dadin beharrezkoak diren neurri administratibo eta legegintzakoak. Neurri horiek baliagarri izan beharko dute XXI. mendean herritarren beharrei erantzun eraginkor eta efizientea emateko, eta xede hori erdiesteko behar diren finantza baliabideak edukitzeko.*

*Neurri horiek Nafarroako gizarte osoan eta haren botere publikoetan izanen dute eragina; hori dela eta, adostasun zabala lortu behar da aipatu ereduak zehazteko, betiere herritarren borondatea eta zilegi diren interesak errespetatuz.*

#### IV.2. 2006ko EKITALDIAN ZEHAR NAFARROAKO TOKI ENTITATEEN ARAUBIDEA EZARRI DUTEN ARAUEN MULTZOA

Honako hauek dira toki-esparruan munta handiena duten arauak, 2006ko ekitaldian onetsitako artean:

- Martxoaren 17ko 3/2006 Foru Legea, 2006-2008 aldirako toki azpiegituren plan bereziari buruzkoa.
- Maiatzaren 16ko 15/2006 Legea, Aurrekontu-orekari buruzko abenduaren 12ko 18/2001 Lege Orokorra aldatzekoa.
- Ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legea, Kontratu Publikoari buruzkoa.
- Ekainaren 30eko 8/2006 Foru Legea, Nafarroako Segurtasun Publikoari buruzkoa.
- Uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege orokorraren Erregelamendua onesten duena.
- Uztailaren 18ko 27/2006 Legea, zeinaren bitartez arautzen baitira, ingurumenaren alorrean, informazioa eskuratzeko, partaidetza publikorako eta justizia eskuratzeko eskubideak.

- Azaroaren 21eko 12/2006 Foru Legea, Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistroari eta Katastroei buruzkoa.

- Abenduaren 14ko 15/2006 Foru Legea, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa.

Geroago, 2007an, otsailaren 14ko 1/2007 Foru Legeak aldatu egin zuen uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea, Nafarroako Toki Administrazioari buruzkoa, toki-kontratazioaren alorrean.

Horrez gain, 2007ko Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko 17/2006 Foru Legeak aldatu egin zuen abenduaren 3ko 17/2004 Foru Legea, zeinaren bitartez ezartzen baita toki ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko funtsaren zenbatekoa eta banatzeko formula 2005etik 2008ra bitarteko aurrekontu-ekitaldietarako. Aldaketa horren indarrez, toki ogasunen funtsaren hiru-hileko ordainketak egiteko unean oraindik Toki Administrazioiko Departamentuan aurkeztu gabe badituzte, gutxienez ere, azken hiru kontu-espeditenteak, funtseko dirua eman gabe utziko zaie, harik eta dokumentazio hori egiazki aurkezten duten arte.

Lege horietatik azpimarragarrien jotzen diren alderdien artean, honakoak aipa ditzakegu:

- Nafarroako Segurtasun Publikoari buruzko ekainaren 30eko 8/2006 Foru Legeak antolatu egiten ditu Nafarroak arlo horretan dituen eskumenak, administrazio ezberdinen, agintari eskudunen, polizia-kidego ezberdinen eta gainerako segurtasun-zerbitzu publiko eta pribatuen arteko koordinazioa lortzeko helburuarekin.

- Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 14ko 15/2006 Foru Legeak aitortu egiten du gizarte-zerbitzuak eskuratzearen unibertsaltasuna, eta zerbitzu-zorroak onestea aurreikusten du, zeinetan sartuko baitira herritarrek zilegi dituzten prestazioak; hori, hain zuzen, herritarren eskubide subjektibo bat da, haiek exigitu ahalko diotena prestazio horiek eman behar dituzten administrazioei. Horrek ezabatu egiten du gizarte-zerbitzuen izaera asistentzialista. Nafarroako Foru Komunitateko lurralde osoan elementu homogeneizatzaileak sartzen dira, horrela Nafarroako herritarrei bermatzeko gutxieneko prestazio batzuk egotea, bai eta zerbitzuen kalitateari dagozkion oinarriko baldintza batzuk ere. Hori guztia, zein den ere bizi direneko edo prestazioa jasotzen duteneko udalerria.

- Nafarroako Foru Komunitatearen esparruan, Kontratu Publikoari buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legea da kontratuen gaiari buruzko araubide berria, eta aldaketa garrantzitsuak egiten dira, hala egiturazkoak nola funtsari buruzkoak, 1998ko Foru



Legearekin alderatuta, zeina guztiz indargabetuta gelditu baita. Gai honi buruzko arau-esparru berriaren ondorioz, 1/2007 Foru Legeak Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea aldatu zuen, toki-kontratazioaren alorrean.

Arau honek toki-kontratazioaren alorrean jadanik existitzen diren espezialitateak Kontratu Publikoari buruzko Foru Legea egokitzen ditu, eta arau-esparru berriak bai oro har toki-kontratazioarako bai zur eta egurretako aprobetxamenduen arloko ondare-kontratazioarako eskaintzen dituen tresna batzuk garatzen ditu.

- Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistroari eta Katastroei buruzko 12/2006 Foru Legeak aldatu egiten du Nafarroako Toki Ogasunen Legea, tributuen toki-kudeaketarekin zerikusia daukaten alderdietan.

Bestalde, adierazi behar da ezen, Estatuaren esparruan, 2006ko urtarrilaren 1ean indarrean sartu zela toki-kontabilitatearen aldaketa, Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorriari egokitua izan ondoren. Nafarroan ez da halako aldaketarik egin.

#### IV.2.1. Beste alderdi orokor batzuk

Toki entitateei aplikatzekoa zaien esparru juridikoa dela eta, Comptos Ganberak ondokoa utzi nahi du jasota:

Nafarroako toki sektoreari administrazio-arrazoizkotasun handiagoa emate aldera Toki Administrazioari buruzko 1990eko Foru Legean ezarritako bideek ez dute eman bilatzen zen fruitua, eta emaitzak eskasak izan dira; izan ere, Nafarroako toki entitateen nahiz haien menpeko erakunde eta enteen kopurua etengabe handitu da azken urteotan.

Halaber, antzeman dugu toki entitateek ez dituztela igortzen Kontratazio Administratiborako Batzordearen Kontratuaren Erregistro Publikora eginitako kontratu guztiak; erregistro hori Kontratuari buruzko Foru Legeko 163. artikuluan ezarri zen. Halatan, aldaketa nabarmena ekarri beharko luke 2006an indarrean sartu izanak Kontratuari buruzko Foru Legea eta Kontratazio Publikorako Batzordea eta haren kargupeko prozedurak eta erregistroak arautzen dituen 236/2007 Foru Dekretua, komunikazio guztiak egiten baitira bitarteko telematikoen bidez. Horrela, ikusi ahal izan dugu 2007an erregistroak jakinarazi digula toki entitateek eginitako kontratuak jaso izana.

Toki sektorea osatzen duten gainerako entitateei buruzko finantza-informazioa edukitzea komeni da, batez ere merkataritza-sozietateei buruzkoa, Toki Ogasunei buruzko Foru Legean ezarritakoarekin bat.

Horren inguruan gogorarazi beharra dago 270/1998 Foru Dekretuak honakoa aipatzen duela: “bateratze egoera-orria (...) ez da nahitaez bete beharrekoa izanen aplikatzekoak diren bateratze arauak garatu arte”.

Hori guztia kontuan hartuta, toki entitateak arautzeko lege-esparruari dagokionez, honakoa gomendatu behar dugu:

- *Botere publikoek osa ditzatela toki entitateei buruzko arau-multzoaren xedapenak, toki entitate horiek eskura izan ditzaten indarreko legediak ezartzen dituen lanabesak eta bitartekoak, eta, horrela, euren baliabideak eraginkortasun handiagoz kudeatzeko aukera izan dezaten. Gai horretan, diseinatu beharreko administrazio ereduak aintzat hartu beharko du Nafarroako toki entitateen taxuketa anitza –tamaina, bitartekoak eta giza baliabideak–, arauetako eskakizunak egokitzeko. Foru Komunitateko toki sektorearen administrazio arrazoizkotasunaren maila areagotze aldera legedia indardunean aurreikusitako neurriak ere hartu beharra dago, zerbitzua hobeki emanen bada toki eremuan.*

- *Toki enteen eta euren merkataritza-sozietate publikoen finantza-informazioaren aurkezteari eta bateratzeari dagozkion eta egoki diren legegintza-neurriak hartu behar dira, sozietate horiek eginitako jarduerari eta, ondorioz, toki sektore publiko guztiari buruzko ikuspegi osoa emateko.*

- *Komenigarria izanik administrazio publiko ezberdinen arteko kontabilitate-normalizazioa, eta Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legeko 235. artikulua ezarritakoari jarraituz, beharrezkoa da toki-kontabilitatearen berrantolaketa ekitea, Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorriari egokitze aldera.*

#### IV.3. EGINDAKO FISKALIZAZIO TXOSTENAK

Txosten honetako “norainokoa” atalean ikusi den legez, 17 entitate fiskalizatu dira, 26 erakunde autonomo dituztenak, eta horiei buruzko txostenak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Comptos Ganberaren web orriaren daude argitaratuta.

Horiek denak argitaratuta daudenez, txosten horietan esaten denari gagozkio.

Oro har, bilakaera positiboa izan du Nafarroako Comptos Ganberak azken urteotan fiskalizatutako entitateen kudeaketak, batez ere aldiro ikuskatu izan direnenak.

Toki entitateei buruz emandako 17 txostenetik, guztira 16 txostenek aldeko iritzia, salbuespenen bat barne, lortu dute, eta batek aldeko iritzia

izan du kontuei eta lege-betetzeari buruz: Berriozarko Udalak.

Salbuespenen edo gomendioen artean, ondoakoak dira gehien errepikatzen direnak:

- Aurrekontu-eredu bat ezartzea, eraginkortasuna analizatzeko ezinbestekoak diren helburu eta adierazleak bilduko dituen (17 entitate).

- Beti gaurkotzen joanen den ondasunen inbentario bat egitea (13 entitate). Komenigarria litzateke aztertzea udalez gaindiko entitatearen batek prozeduraren bat egitea, toki entitateei balioke liekeena inbentarioak egin eta eguneratzeko.

- Aurrekontua eta haren likidazioa epe ezarrietan onestea (13 entitate).

- Lurzoruaren Udal Ondarea eratu eta kudeatu behar da gainerako ondasunetatik bereizirik, sarrerak eta irteerak erregistratuz, eta indarreko araudian ezarritako xedeetarako erabili direla frogatu behar da (11 entitate).

- Hirigintza-hitzarmenen erregistroa eratu behar da, Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko Foru Legeko 26. artikuluan araututakoa (10 entitate).

- Planeamendua aztertu eta, egiteko dauden gauzetan, Lurraldearen antolamendu eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen arabera (35/2002 Foru Legea) eguneratu behar da (8 entitate).

- Udal ondasunen eskrituratze eta erregistratze prozesua osatzea. (8 entitate)

- Ibilgetua osatzen duten kontabilitate-saldoak berrikusi eta garbitu behar dira (7 entitate).

- Ekitaldia hasi aurretik onetsi behar da plantilla (6 entitate).

- Aurrekontuaren kudeaketaren barne kontroleko mekanismoak indartu eta osatu behar dira, egindako eragiketak bermatzeko (saldoak berdinkatu eta berraztertzeari, kontabilitate printzipioei eta inbentarioak eguneratzeari dagokienez) (5 entitate).

- Tasa eta prezio publikoekin ordaintzen diren kostuei buruzko azterlanak aldizka egitea (5 entitate).

- Kontabilitateko egoera-orri bateratuak egitea (udaletxea eta erakunde autonomoak) (5 entitate).

- Erakunde autonomoen jardueraren gaineko udal-kontrola indartzea. Hots, barne-araubideko erregelamendu bat prestatzea, non definituko baitira: organo exekutiboen eskumenak eta erakunde autonomoekiko harremanak. Patronatu ezberdinek euren gain hartu beharreko gastu eta dirusarrerak zehaztuko dira (5 entitate).

- Patronatu batzuk udal zerbitzu bilakatzeko aukera aztertzea; izan ere, haien baliabide ia guztiak udalek jartzen dituzte (5 entitate).

- Kontrol handiagoa obrak egiteko epeetan (5 entitate).

Bestalde, Comptos Ganbera honek egin dituen lanetan ikusten da zenbait entitatek erabiltzen dutela azpimarragarria iruditzen zaigun antolaketa-modu bat.

Horrela, hirigintzaren kudeaketarako, sozietate publikoak eratzen ari dira, zeinen kapitala oso osoki udalak ekartzen baitu. Geroago, enpresa publiko horrek, enpresari batekin, sozietate misto bat eratzen du, non enpresa publikoak kapitalaren ehuneko 50 baino gehiagorekin parte hartzen baitu.

Egin beharreko hirigintza-garapenaren jarduera udaletik sozietate publikora pasatuz doa, eta hortik sozietate mistora; azkenean, eraikuntzaren esleipen-hartzaile suertatzen da sozietate mistoko sozio pribatua.

Iruñerriko zenbait udaletan aurrera eramaten ari den jardueramota hori ikusirik, Comptos Ganberaren iritzia da udalaren kudeaketan nagusi izan behar direla gardentasun eta kontrol mailarik altuenak. Horrekin lotuta, udalek zenbait hirigintza-sozietate sortu izanak, Administrazioaren jardueratik tipiko hori egitekoak, zailagoa egiten du printzipio horiek betetzea, eta konplexuago bihurtzen udalak aipatu jarduerak antolatzea eta kudeatzea.

*Beraz, hau da gure gomendioa: udalak bere burua antolatzeko ahalmena duenez bai eta autonomia ere udal-hirigintza kudeatzeko egokien irizten dion modua aukeratzeko, azter dezala gaur egun jardueratik hori kudeatzeko modua, hirigintza-sozietateen bidezkoa, bai eta kudeaketa-eredu hori bat datorren aipatu jarduerak bilatu beharreko interes publikoaren helburuarekin.*

*Halaber eta betiere gomendatzen dugu hertsiki errespetatu daitezela hirigintzaren eta kontratazio publikoaren alorreko legediak ezarritako irizpideak eta prozedurak, zeinek bermatzen duten zenbait printzipio betetzea, hala nola tratu-berdintasuna, gardentasuna, konkurrentzia, objektibotasuna eta publikitatea, bai eta jardueratik hori guztia udalak behar bezala kontrolatzea ere.*

*Era berean, legegileak aztertu beharko luke posible den eta komeni ote den legezko zuzur-tasun-neurriak ezartzea jardueramodu hori mugatzeko eta, betiere, jardueratik horren zorrotasun, gardentasun eta kontrol handiena bermatzeko.*

## IV.4. NAFARROAKO TOKI SEKTORE PUBLIKOAREN FINANTZA-EGOERA 2006AN

baita Nafarroako toki sektore publikoaren 2006ko finantza-egoera.

Eranskinean aurkezten da Toki Administrazioiko Departamentuak eginiko txostena, non aztertzen

Toki sektore osoaren kontu bateratuei erreparatuz gero, emaitza honela laburbil daiteke:

	2006	2005	2004	2003
Aurrekontu-emaitza doitua	51,3 milioi	36,9 milioi	34,7 milioi	18,5 milioi
Aurrezpen garbia	85,2 milioi	53,9 milioi	56,7 milioi	36,9 milioi
Zorpetze-ahalmena	ehuneko 13,5	ehuneko 9,7	ehuneko 11,1	ehuneko 7,9
Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina	119,5 milioi	112,3 milioi	94 milioi	68,2 milioi
Zorra, guztira	233,6 milioi	223,6 milioi	218,7 milioi	192 milioi
Zor bizia biztanleko	397 euro	380 euro	374 euro	333 euro

Gastuak ondoko arloetan egiten dira batez ere: inbertsioak (ehuneko 37), langileak (ehuneko 24) eta ondasun arruntak eta zerbitzuak (ehuneko 25); horien finantzaketa, berriz, transferentzietatik (ehuneko 46) eta tributu bidezko dirusarreretatik (ehuneko 34) heldu dira.

Gastuak kode funtzionalen arabera aztertuz gero, azpifuntzio nagusiak ondokoei dagozkie:

	2006 (%)	2005 (%)	2004 (%)	2003 (%)
Hirigintza eta arkitektura	21,0	15,3	17,7	17,6
Entitatearen administrazio orokorra	9,0	9,5	9,0	8,6
Pentsioak eta antzeko bestelako prestazio ekonomikoak	6,0	6,9	7,1	6,6
Kirolaren sustapena eta zabalkundea	6,4	6,3	7,0	9,4
Uren saneamendua, hornidura eta banaketa	5,3	6,9	6,4	7,1
Kulturaren sustapena eta zabalkundea	4,3	4,7	4,9	4,2
Segurtasuna eta babes zibila	4,6	5,0	4,6	4,5
Atsedeneko eta aisialdiko bestelako jarduerak	3,3	3,9	3,8	3,4
Zaborrak bildu, tratatu eta deuseztatzea	2,8	3,5	3,6	2,6
Finantza-karga	3,4	3,8	3,5	5,0
<b>Honaino, guztira</b>	<b>66,1</b>	<b>65,80</b>	<b>67,60</b>	<b>69,00</b>

Hona azken urteotako bilakaera:

	2006	2005	2004	2003
<b>Gastuak</b>				
Arruntak, ehunekotan	56,5	62,3	60,1	56,2
Kapitalezkoak, ehunekotan	43,6	37,7	39,9	43,8
<b>Dirusarrerak</b>				
Arruntak, ehunekotan	66,1	67,2	68,1	68,9
Kapitalezkoak, ehunekotan	33,9	32,8	31,9	31,1

Datu horietan ikusten den bezala, gastu arrunten eta kapital-gastuen ehunekoak, 2006an, 2003koen antzekoak dira berriro ere; dirusarrerai dagokienez, arrunten pisuak beherakada apal eta jarraia nozitzen du eta, beraz, kapitalekoek gora egiten dute.

Dirusarrerak beren jatorriaren arabera aztertzen baditugu, ikusten dugu ezen, ondare-dirusarreraren gorakadarekin eta transferentzien beharakadarekin 2005ean izandako aldaketaren ondoren, 2006an ehunekoak aurreko urtekoen oso antzekoak izaten segitzen dutela.

	(ehunekoak)			
Dirusareren jatorria	2006	2005	2004	2003
Tributu bidezko dirusarrerak (1+2+3)	34	34	35	33
Transferentziak (4 eta 7)	46	45	49	49
Finantza eragiketak	3	4	8	8
Ondarezkoak (5+6)	17	17	9	10
<b>GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>

Ondoko taula honetan islaturik dago zein izan den gastu eta dirusarrera arrunten eta tributu-dirusareren bilakaera 2003tik 2006ra bitartean:

	2006	Aldea, ehunekotan 2006/05	Aldea, ehunekotan 2006/03	2005	Aldea, ehunekotan 2005/04	2004	Aldea, ehunekotan 2004/03	2003
Gastu arruntak (1etik 4ra)	517.201.784	%9,0	%27,0	474.424.551	%8,9	435.553.722	%7,0	407.227.778
Gastu arruntak biztanleko	861	%7,6	%22,1	800	%7,2	746	%5,8	705
Gastu arruntak (1etik 5era)	629.607.932	%14,2	%32,5	551.240.541	%7,5	512.763.184	%7,9	475.238.266
Dirusarrera arruntak biztanleko	1.048	%12,8	%27,3	929	%5,8	878	%6,7	823
Tributu bidezko dirusarrerak (1+2+3)	323.618.857	%15,9	%37,3	279.186.716	%6,7	261.699.516	%11,1	235.630.848
Tributu bidezko dirusarrerak (1+2+3) biztanleko	539	%14,4	%32,0	471	%5,1	448	%9,8	408
Erreferentziazko populazioa	600.857			593.209		584.071		577.500

Populazioa ehuneko 4 hazi den epe horretan:

- Gastu arruntak ehuneko 27 hazi dira, baina igoera ehuneko 22,1ekoa baizik ez da biztanleko aztertuz gero.
- Gastu arruntak ehuneko 32,5 igoera dira, baina biztanle bakoitzeko aztertuz gero ehuneko

27,3,1ekoa da igoera.

- Tributu bidezko dirusarrerak ehuneko 37,3 igo dira, baina biztanleko aztertuz gero ehuneko 32,0koa da igoera.

Honako hau izan da azken urte hauetako zorraren bilakaera:

	2006	2005	2004	2003
Zorra, guztira (euroak, milioitan)	234	224	219	192
Zorra biztanleko (eurotan)	397	380	374	332

Datu horien bidez ikusten denez, 2003 eta 2006 arteko zorra ehuneko 21,9 igo da, nahiz eta biztanleko zorra ehuneko 19,6 soilik igo.

Eranskinaren bigarren partean sartu dira udal bakoitzari buruzko datuak, eta, aldeaz aurretik, zortzi biztanle-tarteei buruzko batez besteko adierazle batzuk (500 biztanletik 50.000 biztanletik gorako udalei buruzkoak), halako moduz non entitate bakoitza bere biztanle-tarte berekoen batez beste-koekin konpara daitekeen.

Orobat aurkeztu dira biztanle bakoitzeko zergen likidazioari buruzko datuak, eta entitate bakoitzari buruzko lau urtetako adierazleak sartu dira; horrela, konparazioak egitea errazten da.

Txosten hau eman da araudi indardunak ezarritako izapide guztiak bete ondoren.

Iruñean, 2009ko otsailaren 3an

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde